

Nafarkaria


• ostirala • 2000ko irailaren 15a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Astitz • Bihar aterako dituzte enkantean herriko hogei uso postuak
Emilio Etxabarren: «Zaila du Nafar Ateneoak gazteengana heltzea»



Egunotan, Tuteran, juduek Nafarroan utzitako ondarea aztertzen aritu dira hainbat aditu. Eta heldu den astean Lizarrako VIII. Sefardi Astea egingen dute. Juduak bospasei mendez bizi izan ziren Nafarroan, harik eta Errege-Erregina Katolikoaren presioa zela-eta 1498an kanporatu zituzten arte. Hala ere, juduek utzi zuten arrastorik gurean. Aztarna horiek, baina, ez dira guztiak materialak, pentsamendu eta literatura arlokoak baizik. Izan ere, Nafarroak eman dituen sona handiko intelektual batzuk juduak baitira; Benjamin Tuterakoa eta Yehuda Ha-Levi, kasu.

Iruñea • Auzoko jaiak antolatzeneko

Udalak auzoetako jaiak diruz laguntzeko irizpideak finkatu ditu

Iruñeko auzoetako jaietan gastatzen duen dirua kontrolpean izatearren, hainbat irizpide zehatz eta zorrotz ezarri ditu Udalak, eta laster jai batzorde eta elkartei jakinaraziko dizkie.

IRUÑEKO UDALEKO KULTURA sailak jakinarazi duenez, irizpideak finkatu ditu Udalak berak auzoetako jaietan izanen duen parte-hartzea zehazteko. Jaietako ekitaldi jakin batzuk finantzatuko ditu Udalak, eta «Nafarroan egoitza fiskala duten aisiako enpresek eginitako ekitaldiek lehentasuna izanen dute».

Udalaren finantzazioaren kopurua aurreko urteetako en antzekoa izanen da, eta, «gizarte esparru zabala atenditzearren», haurrentzako ikuskizun baten eta berbena baten antolakuntzak lehentasuna izanen du.

Antolatzaileek eta Udalak hitzartu dituzten ekitaldien egiteak baldintzatuko du diru laguntzen ematea. Gastuen justifikatzea fakturen bidez egin beharko da, jaiak bukatu eta hamabost egun iragan baino lehen. Fakturak batera, informazio materialak eman behar zaizkio Udalari (kartelak, liburuxkak, egitarauak...). Auzoko



Iruñeko Udalak irizpide zehatzak izango ditu kontuan auzoetako jaiak diruz laguntzeko tenorean. Irudian Arrotxapeako jaiak ageri dira. • INAKI VERGARA

jai batzordeak ateratzen dituen argitalpenetan Udalak laguntzaile bezala agertu beharko du. Egitarauarekin liburuxka osatzen bada, Udalaren laguntzaren aipamena barnean egin beharko da. Udalak, gainera, lagunduriko ekitaldiak zerrendatzea gomendatu du.

Udala irizpide hauen gaineko informazioa bidaltzen ari da auzoetako jaietako batzorde eta erakundeei, heldu den urtetik aurrera Udalari dirua eskatzeko egin beharrekoa zer den jakin dezaten.

23,5 milloi

Beste aldetik, Iruñeko Udalak jakinarazi duenez, aurtan

23,5 milioi pezeta gastatuko ditu (940.000 libera) herritarrek parte hartzeko ekitaldietan eta kultura eta arte ekitaldietan. Orotara, 223 ekitaldi lagunduko ditu Udalak. Horietako 188 auzo elkarteek antolatu dituzte (diru laguntzen %72), 21 eskualdeetako etxeek (%8,5) eta 14 beste motatako elkarteek (%19,5).

Udalak informazio ohar batean adierazi duenez, «irizpide objektiboak» erabili ditu diru laguntzak banatzeko. Udalarrendako, «elkarbizitza, askatasuna eta sormena» bultzatzen dituzten ekitaldiek dute lehentasuna. Diru laguntzak banatzeko programak ekitaldiak sei hilabeteko aurreikus-

penarekin egitera bultzatu nahi ditu antolatzaileak, eta, gainera, lagunduriko jardueran «ikuskatze zorrotza» ezartzea du helburu.

Ebaluazio baremoaren arabera, ekitaldiek 100 puntu lor zitzaketen gehienez. Interes, kalitate, originaltasun eta parte-hartzeagatik gehienez 40 puntu ematen ziren; aurreko urteko programazioagatik, 20 puntu; elkarteak kide kopuruagatik, 15 puntu; ekitaldiak hiriko dinamizazio sozio-kulturalen izanen duen eraginagatik, 15 puntu; eta elkartearen antzinasunagatik, 10 puntu.

→ Asier Azpilikueta

Bera • Argazkilari amateurak

BERAKO KULTUR BATZORDEAK antolatuta, Bortzirietako argazkilari amateurren lehendabiziko erakusketa antolatzen deialdia egin dute. Bertan, Bortzirietako edozein pertsonak parte hartu ahal izanen du. Argazkiak hiru gaietan sailkatuko dira, eta horiei erantzuten dietenak baino ez dira onartuko: erretratoa, paisaia eta kultur ekitaldiak. Argazkilari bakoitzari gutierrez sei argazki eskatuko zaizkio, eta ez da derrigorrezkoa izanen gai guztietatik lanak aurkeztea.

Argazkiak zuri-beltzean nahiz koloretan aurkeztu beharko dira, eta edozein teknika erabili ahal izanen da horretarako. Antolakuntzak aterako ditu kopiak, eta horretarako, parte hartzaileek negatiboak eta kopia bat paratu beharko dituzte Berako Kultur Batzordearen eskutan. Behin kopiak egindakoan, argazkilariak negatiboa eta kopia jasoko dute.

Parte hartzeko, lanak azaroaren 10a baino lehen aurkeztu beharko dira Berako Kultur Etxean, arratsaldeko 15:00etatik 19:00etara, eta argazkilariaren izen-abizenak eta telefonoa paratu beharko dira.

Antolakuntzak argazkigintzan hasi berriak direnei edota argazkigintza afiziotzat dutenei Kultur Etxeko erakusgela eskura paratzeko bidea aurkitu nahi du. Erakusketa hori eguberrietan ikusi ahal izanen da Berako Kultur Etxean, abenduaren 22tik urtarilaren 7ra.

→ Jon Abril

muga enea

MIKEL REPARAZ



Namibiako himba tribuak ikasturteari ekin dio basamortuko ertzetan, Atlantiko ozeanoari so. Supermerkatutik boltsa bete tomate etxolara eraman eta haurrak ez ditu herrixkan zehar patinetze gogaikarri horiekin olgetan aurkitu. Ikasturtea hasi da, pentsatu du ama himbak, eta irribarra ezin izan dio ezkutatu himba amonari. Bien bitartean, artean ere udagihoan bizi garenon latitudeetan ikasturteak apenas ekarri duen irribarrerik. Gizaki helduon artean, erran nahi baita. Parlamentuak, diputazioak eta udaletxe sotoak udako kirolari, nekazari eta arrantzalez lepo baitaude hain dagoeneko, eta haurrak pozez zorutzen. Gurasoak lanean ikusteaz, ale-

gia. Izan ere, ikasturtea 'ikasi' eta 'urte' hitzen arteko jumelajea bide da-eta. Eta denek dugu zer ikasirik urtea hastearrekin batera. Mahatsa biltzen irailetik irailera mende erdi eman duten mendematzaille gogortuendako ere ikasturtea hasi baita, eskuetako arraildurak eta kopeta beltzek esperientzia faltarik iradokitzen ez badute ere. Gauza franko ikasten baita irailetik irailera, baita Ebro ibarreko sokor eta hautes artean ere. Zer esanik ez gero egunetik egunera egunkarietako orriak betetzen eta orduz ordukoak brodatzen saiatzen garenok ikasteko dugunaz, edo eta mendian gora artzai batek irakats dezakeenaz. Ikastea ez baita soilik gizakion pribilegioa. Haatik, zi-

minoek eta tropiko aldeko delfin batzuek ere ba omen dute jakintza alor-anitzeko ezaguera birtualak barneratu eta sintetizatzen ahalmenik. Politikariak ez bezala. Haiek -akronimo ilunen begiradapean askatasuna eta demokrazia eskuz esku erabiltzen dituzten izaki mediatiko haiek- ez baitute zer ikasirik, orojakintsunaren eta inbilibismo intelektualaren al daretik boz goraz behin eta berriz diotenez. Neroni bainaiz Egiaren eta Soluzioaren jabe, esaten dute. Eta ezjakintsunaren itxikeriak endogamiaren kalteak gizarteari zabaltzen dizkio gero. Hortik etorriko da, noski, euskara itzultzaile batek egin gomendioa: «urte politikoa» esan; ez «ikasturte politikoa».

Astitz ●

Uso postuak enkantean

Astitzek milioi bat pezeta baino gehiago eskuratzen du enkanteetan

Bihar, arratsaldeko seietan, Astitz herriko aterpean, azken sei urteotan egin duten bezala, hamaika uso postuen enkantea egingo da. Hemendik aurrera bertako eta kanpotik etorritako ehiztarien ahotan ez da beste konturik entzunen.



Astizko uso postuak aterako dituzte bihar enkantean. Herriak 1.200.000 pezeta lortzen du urtero hortik.
●
ELI BELAUNTZARAN

JOSE MIEL AZPIROTZ ASTIZ-ko alkateak gogoratu duenez, herriko uso postuak duela sei urte enkantean atera zituztenean, herrira duela 25 urtetik etortzen ziren ehiztariak ez zuten albiste hori oso ongi hartu, ordu arte bi pezeta ordaindu eta gero egiten baitzuten ehizan. Baina kontuak aldatu egin ziren herriak ikusi zuenean uso postuen enkantea diru iturria zela.

Azpirotzek azaldu duenez, 1.200.000 pezeta lortzen dituzte enkanteetan (48.000 libera), eta beste herri batzuentzat diru hori agian gutxi bada ere, Astizko herriarentzat garrantzitsua

dela esan du. Urteko aurrekontuaren herena da, eta beharrezkoa da gauzak edo proiektuak aurrera ateratzeko. Ehiztariak mendia gustuko dute, baina uso tokiraino autoan joatea gustatzen zaie eta, horregatik, bideek txukun-txukun egon behar dute bertaraino joan ahal izateko. Gainera, aseguruak eta bes-

telako gastuak ere herriak ordaintzen ditu, eta dena kontuan izanda, lan dexente omen da herritarrentzat.

Denetara 20 uso postu daude Astitzen, eta haietatik herriko ehiztariak sei erabiltzen dituzte egunero, zozketa baten ondorioz nori noiz egokitzen zaion erabaki eta gero. Beste hiru Mugirokoentzat

dira, duela urte batzuk horrela erabaki baitzuten.

Gipuzkoatik datoz gehienak

Dirudienez, ehiztari gehienak Gipuzkoatik etortzen dira, eta haiek mendian usoen zain ordu dexente ematen dituztenez, Astitzen dagoen txabola batean egoten dira gosaltzen eta beste lagunekin kontu kontari; ehizara joaten direla esan arren askotan aterpe bila joaten dira, dela goizeetan hotza egiten duelako, dela bestetan eguraldi txarra egiten duelako, edo auskalo.

Astitz ingurutik etortzen direnak ere badira, eta ordu pare bat postuan egin ostean lanera joaten dira korrika eta presaka. Baina hori dena afizioa dagoenean ez omen da lana, eta, horregatik, urtetik urtera gero eta ehiztari gehiago etortzen dira Astitzera uso batzuk botatzeko esperantzarekin.

Zenbait ehiztari ere urtero etortzen da, ehiza bila baino gehiago lasaitasun bila, eta hori Larraungo herri eder honetan ez da falta. Hori bai, hurrengo hilabetean gora eta behera ibiliko den auto kopurua gehitu egingo da, eta aterpean bezero gehiago izanen dituzte, seguru.

→ Eli Belauntzaran



herri aldizkariak
Eduarne Elizondo

Ur-bilatzailea eta ezkilak

Jose Luis Perez ur-bilatzaile olaztiarra eta Etxalarko eliza dira **Guaixe** eta **Ttipi-ttapa** aldizkarietako protagonista azken asteon. Guaixek, Jose Luis Perez **Chato** ur-bilatzaile ezagunari egin elkarrizketaren bidez, haren lanaren herri zabala ematen du. Ondokoak dira Chatoen hitzak: «Betidanik izan dut ura bilatzeko zaletasuna, baina igarle izateko asko trebatu behar denez, jubilatuta ezin izan naiz prestatu. Lehenengo lana nire soroan bertan egin nuen. Nire kabuz ikasi dut, liburuak iraku-

rriz eta, batez ere, eguneroko jardunean ikasi dut gehien. Behin zahori bat etorri zen Olaztira eta berarekin zer edo zer ikasi nuen, baina, batez ere, eguneko jardunean». **Ttipi-ttapak**, bestalde, Etxalarko elizan eginen dituzten konponketen berri ematen du: «Elizako dorrean lau ezkila dira, bi tiki, ehun kilora ailegatzen ez direnak, eta, bi handi, 1.700-2.000 kilokoak. Txikietako batek, txinxilak, baditu urte batzuk argi-endarrez ibiltzen dela. Orain, berriz, bertzeak ere elektrizitate bidez

ibiliko dira edo joko dute. Sakristian paratutako programatzaile aparato batetik mugitzen eta jotzen dira. Eta ez hori bakarrik: erlojua ere sakristiako aparato batetik erabiltzen da, hori ere argi-endarrez. Ezkila jotzeko mailuak handiagoak direnez eta indar handiagoz jotzen dutenez, soinua ere handiagoa da orain».

Bestalde, **Ttipi-ttapako** artikulua gaineratzen duenez, arazoak daude oraindik posta Etxalarko baserrietara eramateko.

Erregaiak gora. Gora Erregaiak!

Ez didazue batere penarik ematen. Gupida hitza gauza garrantzitsuetarako gordetzen baitut. Eta baita hausnarketak ere. Zuekin erraza dut. Zuekin urdairen mintzoari bidea ematearekin aski dut. Berdin zaizkit zuen eskaerak eta beharrak («beharra» hau hitz birrindua!). Segi bada negar egiten, negartien multzora ez bainaiz hurbilduko. Atera zaitzete bada errepideetara taxi, traktore eta kamioiekin. Abionetak eta abioiak, edo zuen mukizuen motorrak atera nahi izanez gero, niregatik ez etsi: atera itzazue eta karreterak itxi. Errepideak ongi oztopatzeko zuen motordunei sua eman behar izatekotan, niregatik aurrera, sua eman zuen kotxe guztiei! Eten itzazue findegien sarrera-irteerak. Nahi izanez gero, erre, suntsitu, bertan behera bota itzazue Garraioetarako bulego instituzional guzti-guztiak. Niri bost. Jada Telediarrio eta Teleberri guztiak hartu dituzue, Txetxienian dauden errusiar tropen antzera, labana ahoan duzuela, frantsesez eta ingelesez kameron aurrean garrasika, erregaiak merkeago nahi dituzuela behin eta berriz aldarrikatzen; ezinezkoa zaizuela erregairik gabe lanik egitea, edo etekinak izatea, edo, zehatzago, etekin erraldoiak ateratzea. Aberastea zailagoa duzuela alegia! Mukizuen Playstation-ak kolokan daudela! Eta herrian eraikitzen ari zareten Bigarren Etxebizitza! Eta Bigarren Etxebizitza horretara joateko behar duzuen motordunen flota! Alabatxoan 4x4-a zalantzan dagoela alegia! Eta parabolika! Eta abar! Ez didazue batere penarik ematen. Pena ematen didana zera da: Taxi kolektiboen kontra zaudentela, trenetan garraiatzearen aurkakoak zaretela, dirudunen bizitza bonifikatuaren alde ari zaretela, herrialde kontsumisten abangoardiako lerroa osatzen duzuela, baliabideen esplotazioa itzela, etengabea, eta jarraia eskatzen duzuela kosta ahala kosta. Zuen zilborra mundu mundialeko gazarrik garrantzitsuena dela aldarrikatzen ari zaretela. «Honek ez du kotxerik», esango duzue agian. Hala da. Atzo, lanetik bueltan, txirrindularen gainean, kotxe garesti, zenbaezin, hiltzaile, eta kutsakorren artean marmartutako madarikazioak besterik ez dira hauek. ●

Juduen ondarea

ERREGE KATOLIKOEN GAZTELA ETA ARAGOIN bizi ziren juduak kanporatu zituztenean, 1492an alegia, bi mila bat judu Nafarroan hartu zuen ostatu, Tuterako eta Lizarrako *aljama*. Baina juduek, orduko, sei bat mendeko historia zuten Nafarroan. Hain zuzen ere, Tuterako judutegia penintsulako garrantzitsuenetakoa izan zen eta bertan itzultzaile eskola bat izan zela uste da. Nolanahi ere, Tuterakoak ziren, besteak beste, Benjamin Tuterakoak, Yehuda Ha-Levi eta Abraham Ibn Ezra intelektualak.

Astelehenetik asteazkenera, laugarren Judu Topaketak egin zituzten Tuteran. Juduen ondarea Mendebaldeko Europan lelopean.

Aurreko hiru aldietan, erbestealdia, jazarpenak eta Ekialdeko Europako judutegiak aztertu zituzten. Tuterako jardunaldiak NUPEko Historia departamentuak antolatzen ditu, Nafarroako Gobernuaren laguntzaz. Tuteran dozena bat adituk horrenbeste hitzaldi eman ditu aipatu gaiaren inguruan. Eta heldu den astean, juduen inguruko beste lau hitzaldi izanen dira Lizarran.

Tuterako jardunaldietako antolatzaile Fermin Miranda irakaslearen aburuz, oraindik bada gauza anitz gai honen inguruan ikertzeko. «Mende asko izan ziren hemen, eta momenturen batean, Nafarroako populazioaren %5a ere baziren», erran du. «Dokumentazio guziaz barreiatu zitegun, oraindik badira datu asko argitaratu gabe. Horren harira, aipatu behar da Nafarroako Gobernuaren dokumentazio guziaz Nafarroa judutarra izeneko bilduman ateratzen ari dela modu sistematikoan. Horrela, ikertzeko interesa duenak bildumara jo dezake zuzenean, artxiboetan galdu gabe».

Jardunaldi osagarriak

Tuterako jardunaldietan Mirandak Donejakue bideko juduak izeneko hitzaldia eman zuen. Kurioski, heldu den astean eginen duten Lizarrako Sefardi Astea Donejakue Bideko Lagunak izeneko elkartearen antolatzen du. Baina Miranda ez da elkarte horretako kide; besterik gabe, berak izan ohi dituen bi ikerketa ildoak uztartu nahi zituen, juduak eta Donejakue bidea. «Tuterako eta Lizarrako jardunaldiak osagarriak dira», adierazi du Mirandak. «Baina izaera ezberdina dute, nahiz eta batzuetan hizlariak berberak diren. Lizarrakoak dibulgazio-koagoak dira, publiko zabalari zuzenduta daude. Tuterakoak ez dizkiogu publikoari ixten, baina, batez ere, gai honetako ikertzaileei zuzenduta daude».

Lizarrako jardunaldiek zortzigarren aldia dute aurtin, eta sefardien pentsamendu eta

Heldu den astean Lizarrako VIII. Sefardi Astea eginen dute

Juduak bospasei mendez bizi izan ziren Nafarroan, harik eta Errege Katolikoen presioa zela-eta 1498an kanporatu zituzten arte. Hala ere, juduek arrastorik utzi zuten gurean. Azterna horiek, baina, ez dira materialak, pentsamendu eta literatura arlokoak baizik, Nafarroak eman dituen sona handiko intelektual batzuk, Benjamin Tuterakoak eta Yehuda Ha-Levi kasu, juduak baitziren.

Lizarrako VIII. Sefardi Astea

Irailak 19

Angel Saenz-Badillos: «Razón y fe en el judaísmo hispano: Yehudah Ha-Levi»

Irailak 20

Judit Targarona Borrás: «Mesianismo en Maimónides»


Irailak 21

Fernando Díaz Esteban: «Pensamiento judío en Amsterdam en el siglo XVII»

Irailak 22

Sultana Wahnon: «El pensamiento de Elias Canetti»

*Hitzaldi guziaz Gustavo de Maeztu museon izanen dira, 20:00etan



Judutegiko espazio itxi eta estuak Tuterako zenbait karriketan antzeman daiteke. Irudian Tuterako katedralera doan karrika ageri da.

MIKEL SAIZ

mistika jorratuko dute. Antolatzaileek zehazki, Elias Canetti sefardi jatorriko pentsalaria hartu dute ardatz, eta, besteak beste, haren inguruan mintzatuko da Sultana Wahnon aditua Sefardi Asteko azken egunean.

Sefardi Asteko koordinatzaile eta Donejakue Bideko Lagunen elkarteak kide Gregorio Diazek jardunaldion izaera irekia eta dibulgaziozkoa dela azpimarratu du, juduen historia aztertzen duen beste hainbat topaketaren aldean. Toledon eta Gironan egiten dituzten azterketak, Lizarrako zaharretakoak da. «Duela bederatzita urte antolatzen genuen lehenengo astea, eta, geroztik, jendearen harrerak harritu egin gaitu beti. Erantzuna ezin hobea izan da publiko zabalari zuzendutako hitzaldiak antolatzen ditugulako. Elkartegisa, gure ekitaldietan ahalik eta jende gehien biltzea da gure helburua. Beste topaketa batzuk izaera akademizistatua dute; unibertsitateko ikasle eta irakasleentzat antolatzen dituzte».

Juduak Donejakue bidean duten presentzia bultzatuta erabaki zuten Lizarrako Donejakue bideko lagunak astero sefardi antolatzea, Lizarran duela 500 urte arte bizi izaniko judu komunitatearen historia ezagutzeko eta ezagutzera eramateko asmoz. «Herriarrek ezer gutxi dakite 500 urte hemen bizi ziren juduen inguruan, ez dakite zein den haien jatorria. Ezjakun horrek zerikusirik handia du, nire ustaz egun erlijioa dela-eta juduen kontrabandari jarrerarekin». Hori dela eta, Diazek argi du Lizarrako aste sefardiaren helburua dela juduen egungo egoera azterzea, ikuntza historikoa jorratzea baizik. «Duela 500 urte Lizarran bizi ziren juduak aztertu nahigu, ez gaur egun Israelen bizi direnak».

Azternarik ez

«Duela 500 urte erabatekoa izan zuten kanporatzea, eta, ondorioz, azternarik da gelditu herrian, ez kalerik ez ezer», azpimarratu du Gregorio Diazek. «Hilobi Santuak elizan ageri diren XIV. mendeko bi juduak dira dugun arrastro bakarra». «Tan ere ez da juduen aztarna materialik. Gure eren, juduen espazio estuak antzeman daitezke Alde Zaharreko zenbait karriketan. Biek utzi duten ondarea, ordea, edozein ataz



Tuteran, Dombritz karrikan, ustez juduen etxe propotipikoa den eraikin bat dago. Hala ere, juduek utzi diguten ondare materiala baino, ondare intelektuala da garrantzitsua.

EGUNKARIA

Juduen gaineko Tuterako eta Lizarrako jardunaldiak osagarriak dira. Tuterakoak adituei zuzendurik daude batez ere, eta Lizarrakoak dibulgazioa dute helburu, hau da, publiko zabalari zuzenduta daude, aurkitzen dute.


haratago doa, Diazen aburuz: «Bizikidetasuna da juduek utzi diguten ondare nagusia. Juduak ez ziren saiatu euren bizitzeko eta pentsatzeko modua inposatzen, kristauak ez bezala. Kristauak besteak euren erlijioa aldatzen saiatu ziren beti; juduak, ordea, ez».

Izan ere, Tuteran kristauak, juduak eta mairuak harmonian bizi zireneko hori «mito handia» dela uste du Miranda irakasleak. «Erdi Aroan, hiru kultura horiek elkarrekin bizi izan ziren garaian, erlijioaren indarra hagitz handia zen, eta alde horretatik, bizikidetasuna zaila zen», erran du Mirandak. Kristauek errezelo eta gorrotoa zieten juduei, horiek kristauei, eta gauza bera mairuekin. Kontua da elkarren beharra zutela. Baina kristauek mairuen eta juduen beharrik ez zutela ikusi zutenean, nekazaritza teknika ikasi eta komertzioan sartu zirenean, kanporatu zituzten. Horrek erran nahi du ez zutela aipatu ohi den harmoniazko harreman hori, bestela ez zituzten kanporatuko».

Asier Azpilikueta

Fermin Miranda

NUPEKO IRAKASLEA



MIKEL SAIZ

«Nafarroak bere historian eman dituen literato handienak juduak dira»

NUPEko Historia Departamentuko irakaslea da Fermin Miranda iruindarra. Erdi Aroko historia-koa hain zuzen, eta Tuterako jardunaldietako batzorde antolatzaileko idazkaria ere bada.

Zergatik egiten dituzte juduen gaineko jardunaldiak?

NUPEko Historia Departamentuko ikerketa ildoan artean, judaismoarena zaharrena izango da beharbada, pisu eta tradizio handia du. Juan Carlos Copo katedradunak hogeita urte darabata juduen historia aztertzen.

Betidanik izan dugu interes berezia jardunaldietan parte hartzeko, aldizkarietan kolaborazioak egiteko. Eta iritsi zene bat ikusi genuena geure jardunaldiak antola genitzakeela, hau da, gure ikerketak aurkeztera kanpora joan ordez, hemen Nafarroan aurkeztea, eta beste ikertzaile batzuk hona etortzea euren aurkeztera. Gai honen ikerketan genuen tradizioa profitezko sortu genituen jardunaldiak.

Zer ondorio izan zuen juduen kanporatzeak?

Nafarroan ez zuen ondorio handirik izan, kristautasunera aldatzeak geroz eta ohikoagoak zirelako, kristauek presio handia egiten baitzuten. Hortaz, kanporatze garaian, aldatu gabeko juduak guti ziren. Aragoi eta Gaztelan juduek oraindik bazuten indar ekonomikoa eta kanporatzeak trauma ttipi bat sortu zuten. Baina Nafarroan ez. Propaganda kontua izan zen kanporatzea, eta, gainera, propaganda hori ez zen Nafarroako erregea izan, Errege-Erregina Katolikoa baizik, presioa egin baitzuten juduak kanporatu eta batasun erlijiosoa erdiesteko.

Batez ere pentsamendu eta literatura arloari dagokio utzirik ondarea. Badira Nafarroako zenbait intelektual literatura unibertsalean pisu handia izan zutenak, hala nola Benjamin Tuterakoak bidaiari idazlea, Yehuda Ha-Levi poeta edota Abraham Ibn Ezra filosofoa. Hirurak juduak ziren, eta hirurak Tuterakoak.

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Bizkaitar bidaiari biz

Bada euskal literaturan uste ohi den baino emankorragoa den atala, bidaietako testuei dagokiena hain zuzen ere; gure honetan Duqc, Joanategi, Bengoa Akordabeitia edota Anabitarteren liburuak aipatuak ditugu dagoeneko, alabaina genero honi letxezkiokkeen beste zenbait idazki badira aipagai, besteak beste, Bilbao marinelenak edota Olabarri misiolariarenak.



Bilbao Hiru bat urte dira Aranbarri-Izagirre tandem emankorrek Batxi Bilbaoren berri nara eman zigula honek *Euzkadi* eta *Napartarra* argitalpenetan ateratako izkribuen bilduma ederraren bitartez, *Hau mundu arrano hau*. Euskal literaturaren kronikatza, historia eta krestomatietan idazle honen gainean ezer gutxi agertu bada ere, Izagirre faktoria-koak ez zuten etsi, eta aurrera egin zuten idazle bizkaitar ahantziaren arrasto urrien atzetik. Emaizak bistan dira. Juan Bautista Bilbao Elgeza-bal 1887ko irailaren 7an jaio zen Arratzuko errementariarenean. Gazterik gazte sartu zen itsasontzietan maiordomo gisa, eta nahikoa gazte ere Jesusa Zabala mendatarrarekin ezkondu eta hiru alaben aita bilakatu zen Gernikan. Lehengo Mundu Gerrak ikaragarriko mozkinak erakarri zituen Bizkaiko ontzi-enpresei neutraltasun plantan batekin eta bestearrekin trafikatzan jakin izan zutelako. Batxi idazlea itsasetzeh hauen biktima izan zen, eta 1915. urte osoa Euskal Herria jo gabe portuz portu eman ostean 1916ko urtarrilaren 16an zendu zen, bere itsaskide ia guztiak bezala, Palicetik 40 miliara *Bayo* izeneko itsasontziak mina baten kontra jo zuenean.

Jeltzale sutsua, Sabino Aranaren zirkulukoa zen Gernikan, Aranbarri-Izagirrek jasorikoaren arauera, eta bere etxean Aranaren beraren gutunak bazeuden, tamalez bonbardaketan galdu zirenak. Honen-gatik ere, Baxiren kronikak oro *Euzkadi* egunkarian eta *Napartarra* aste-karian azaldu zi-

ren, lehenbizikoan gutxiz gehien. Idazle oparoa, 1913ko abendutik 1916ko urtarrilera bitartean berrehun kolaborazio inguru igorri zituen esan argitalpenei. Hiru motatakoak dira bere artikulu guztiak, edo Gernikako etxean idatzitako bertako kronika alderdikoi eta publizitarioak, edo saio moduan agertu zituen ipuinak, *Euzkadiko ipuñak* eta *Herri sekulakue*, edo, finean, atzerriko kronikak, bere lanik nagusia, interesgarrien eta borobilen, Euskal Herritiko urruntasunak lagundu baitzuen ideologia jeltzalearen aldeko lan proselitista eta publizitario ez egiten, kosmopolitagoa baina, euskarazko kazetaritzan guttiz gauza berria zena.

Olabarri

Markos Olabarri Arratia aldeko Diman jaio zen. Fraide hirukoiztar sarturik Erroman burutu zituen ikasketa nagusiak eta Madagaskarrera egin zuen misiolari 1949an. Afrikako uhartean urte purrusta emanik, Euskal Herrira itzuli zitzaigun 1990ean adinean sarturik. Alta, adinak ez zuen misiolari izan-

dakoa guttiz makaldu, eta idazlanei zeharo atxekirik, zenbait euskal aldizkaritan hasi zen idazten. Aiurri handiko gizona izanki, misiolari hirukoiztarrek Madagaskarren bizitakoak eta jaso zituen liburu batean, *Euskaldun batzuen abenturak* izenburuko liburuan hain zuzen, Bilboko Ega argitaldaria 1993an karrikaratu zuena, Lino Akesoloren sarrerarekin eta guzti.

Liburua hasteko, uhartearen berri laburra ematen duen hitzaurrea dakar Olabarrik, ohiko atlasetan komunzki agertzen ez diren datu elirekin, hango etnien berri esaterako: antaifasy, antaimoro, antaisaka, antanbahoaka, antandroy, antankarana, antanosy, bara, betsileo, betsimisaraka, bezanozano, merina, sakalava, sihanaka, tsimihety, mahafaly, tanala, vezo... Liburuaren eitea, ordea, nahikoa autobiografikoa da: Madagaskarrera atera baino lehen Marseillan emantiko egunen berri ematen digu Olabarrik, baita bertan hartu zuten *Eridan* itsasontzian Madagaskarko Toamasina hiriraino eginiko itsas-bidaiaren ingurukoak ere. Ondoan datozen hamar kapituluetan barrena pasadizo, gertaera, kontu-zahar, ipuin, deskribapen eta beste plazaratzen ditu Olabarri misiolari zaharrak, kapitulu

gehienaren goiburua zonalde bati doakiolarik: Soavinandriana, Maitirano, Ankadinondry, Bevato, Fenarivo, Antananarivo, Tsiroanomandidy...



etorri ahalean

Patziku Perurena



Ezinbestez

BEJONDIELA: Modu askotara aditua naiz Goizuetan: *bejondia-la (hiri), bejondizula (zuri), bejondigula (guri), bejondiola (hari, behorri), bejondiela (haiei), bejondizuela (zuei)*... Orotariko Euskal Hiztegiak hala dio: «etim. de *biaje + on*». Seguru? Patri Urkizuk apailatutako *Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako Bertso eta Kantak 2* liburuan, hala zioen Jean Robinek *Andren Apainduraz* ari delarik 1780 aldera:

«*Bion daiola modari, bai halaber modistari: sortzeak eskas eman guzien hura dugu konplikagarri*». Eta berriz atzera *Larrunen Bazkalondoko Deserta* izeneko bertsoetan: «*Bion daizula Maria zaren luzaro bizia: gose eztenari janarazteko antze duzu berezia*». Horako bi «bion» horiek ere (bidai + on) ote dira sortzez. Galde egiten dut, besterik ez.

KONPLEJOAK: Lehengo batean aditzen nion Kortezubiko alkateari «*munduan ez dela inor konplejo bakorik, ez inon dirurik ez jakinduririk konplejoak errotik kentzeko balio duenik, eta haren lana jendearen konplejoak apurtxo bet goxatzea dela*». Behar bada horregatik egin izanen da, Euskal Herriko alkaterik unibertsalena.

Arrazoi handia zuen, Jean Robin koplariak: modak eta modistak «*sortzeak eskas eman guzien konplikagarri*» ditugu, jendearen konplejoak ugaltzeko, alegia, eta ez prezioso gorputzeko apainduretan, izpirituko apainduretan eta okerrago.

Baina zein ote zen Epikuro baten zinezko konplejoa, eta Horaziorena, Montaignerena, Cervantesena, Voltairerena, Nietzerena, Piorenena, edo Mikeltxeñeko Kankailuarena? Ez al dator koadrila hau, jakinduriaren moda eta

modista «*konplikagarri*» guziak saihestu nahiz, soiltasun xalo baten indar bila? Bistan da, beraz, zeintsu den beren konplejoa. Kortezubiko alkateak goxatuko ote die, ordea, inoiz?

GUTUN PUSKA ISILDUA: «Oraindik ez zekiat zer den ere poema bat biribiltzea; ipuin bat harrigarri bihurtzea; nobela baten eskeletoa haragiltzea; eta sekulan ez nauk letrekin artista izanen, hitzekin ere ez naizen bezalaxe. Nere bizian aukeratu nezakeen ofiziorik gaitzena aukeratu nian. Neure adierazkortasunik eza, neure hizketako moztasuna kittatzeko edo emendatzeko hasi nintzela uste diat idazten. Beti izan diat oso gustoko sumatzea, ikustea, entzutea, ukitzea, sentitzea... baina sumatu, ikusi, entzun, ukitu edo sentitutako hori guzia adieraztekoan galdu egiten nauk; zinez bizitakoaren errealtatearen zentzu serioegia diat, eta hitzetara orduko erruz desegiten dela ohartzen nauk segituan, eta ezin diat saihestu oharren ezkor hori. Tragikoegia nauk artista izateko, eta umorea eta ironia, fine-nak direla ere, komikoak ditut funtsean. Behar bada, izaera, sentiera, honengatik, pentsamentu hutserako nere joera gero eta nabarmenagoa: bititze fisikoetan baino, agian, kontzeptu abstraktuetan aiseago engainatzen dudalako neure burua hizketan. Baina, hori ere nekea duk. Nik uste patzada honetan «*sentitu eta isildu*» egin nahiko lukeela nere gorputzak finean. Isiltze gihartsu horretan sumatzen diat poetaren indarrak haundiena. Ahulegia duk hitza».

Zenbat aldiz aditu ote nion aitari, grinaldi eder haietan: «*Hitz gutxi, eta haiek onak niri*», gauzen zinezkotasan larrira hurbilduxetakoan. Ez zinezkorik ez da deus, baina...

Ziria

• Motxorrosolo •

Betiko leloa


inoiz, barnera begira egin beharrekoak omen ziren. Oraingo honetan tenore desegokian plazaratu dira. Gai-nean ditugunetan, bestelako pleguak kausituko dituzte. Eztabaida beharrezko dugun garaian, saihezbidea nagusi. Aurki dena bere horretan uzteko bideren bat topatuko dute. Batzuek azken urteotan erakutsi duten dohain bakarra.

Emilio Etxabarren

NAFAR ATENEOKO PRESIDENTEA

«Zaila da gazteengana heltzea»

Aste honetan ekin dio Nafar Ateneoak ikasturte berriari, Nafarroako erreginei buruzko hitzaldi zikloarekin. Datorren ekaina arte, hamaika ekitaldi prestatu ditu elkarte horrek iruindar guztientzat. Literaturaren, musikaren, historiaren eta politikaren ingurukoak izanen dira nagusi.



● MIKEL SAIZ

JOAN DEN URTARRILEAN batzar berria aukeratu zuten Nafar Ateneoko bazkideek, eta Emilio Etxabarren aukeratu zuten presidente. Harekin mintzatu gara elkarre horren asmo eta zereginenaz.

■ **Aurreko batzarrak abian jarritako ildoari jarraituko diozue edo berrikuntzak izanen dira aurtengo egitarauan?**

Oro har, aurretik zeuden ildoak jarraituko ditugu, literatura, musikaren, historiaren eta abarren inguruko ekitaldiak prestatuz, baina gure egitarauak ziklotan antolatzen saiatu gara aurtentzen; hau da, ez ditugu egun bakarreko ekitaldiak egin nahi. Halaber, gaietarako heldu nahi diegu, eta gai bakoitzak ukitzen dituen diziplina guztiak jorratu, ikuspuntu zabalagoa eskaintzeko asmoz. Horretaz gain, ditugun hutsuneak betetzen saiatuko gara datozen hilabetetan.

■ **Zeintzuk dira hutsune horiek?**

Oraindik ez dugula lortu talde guztiengana heltzea. Gazteengana iritsi nahi dugu, eta, aldi berean, gizonezkoengana, gehien emakumezkoak etortzen baitira guk antolatzen ditugun ekitaldietara.

Gazteei dagokienez, badakigu zaila dela haiengana allegatzea, adin kontuagatik, eta unibertsitatean sartuta dudelako. Hala ere, saiatzen ari gara, eta, ildo horretan, gazteriaren batzordea osatu dugu Ateneoaren baitan. Pixkanaka, jende gaztea erakartzen ari gara. Gizonezkoekin gertatzen dena kezkarriagoa dela uste dut, atzean gel-

Ez, hori ez da gure asmoa. Ateneoak antolatzen dituen ekitaldi guztietan sarrera doan da, eta, beraz, bazkide izateak ez du abantailarik ekartzen. Guretzat garrantzitsuena da gazteak guregana hurbiltzea, ekitaldietan parte hartzea eta jakitea haiei zer interesatzen zaien. Bazkide izatea edo ez bigarren mailako kontua da.

turteko ekitaldien baitan azpimarratu behar da XIX. mendeko ideologiaren eta egun bizi duten egoeraren inguruan urrirako prestatu dugun zikloa. Interes handia izanen duela uste dut.

■ **Eztabaidarako gune izan nahi duzue, beraz?**

Bai, baina ez da hori gure zeregin bakarra. Gizartean dagoen hutsune bat betetzen ari garela uste dut. Noski, beste erakunde batzuk badaude eta bakoitzak bere esparrua betetzen du. Erakunde publikoek uzten duten hutsunea betetzen dugu guk eta Nafar Ateneoa bezalako beste erakunde batzuk.

■ **Gizartean nahi duzuen oihartzuna lortu duzue?**

Bai, hala uste dut, eta horren adierazgarri da urte-urtera bazkide gehiago ditugula. Bazkide izateak ez du inolako abantailarik ematen, beraz, jendeak gure erakundeko kide izan nahi izatea esanguratsua da guretzat. Interes soziala duen lana egiten ari gara.

■ **Ibilbide luzea egin duzue dagoeneko.**

Bai, hamabost urte bete berri ditugu. Ospatu nahi dugu, baina zaila izanen da, bulegoan bi pertsona besterik ez baitaude lanean, eta

«Gaietarako heldu nahi diegu, eta gai bakoitzak ukitzen dituen era askotako diziplinak jorratu, ikuspuntu zabalagoa eskaintzeko asmoz»

ditzen ari baitira. Emakumezkoek askoz interes gehiago agertzen dute. Gizon gazteek mugitzen hasi beharko dute.

■ **Zein da gazteriaren batzordearen helburua?**

Gazteekin harremanak sortzea. Oraintxe hasi dira batzordeko kideak lanean, eta, hasteko, gazte sortzaileen topaketa antolatu dute, Altsasun. Kantautoreen zikloa ere egingen dugu, Iruñean.

■ **Gazteak zuen ekitaldietara erakartzea ez ezik, gazteak Ateneoko bazkide izatea lortu nahi duzue?**

■ **Ikasturteko ekitaldiez haratago joanez, zeintzuk dira batzar berriaren helburuak?**

Giroan sumatzen denari erantzuna eman behar zaiola uste dut. Ildo horretan, Europa mailan kezka orokor bat dagoela uste dut, hau da, gertatu denari buruzko gogoeta egiteko beharra. Mende berri baten aurrean gaude, eta jendeak aztertu nahi du iraganen gertatu dena etorkizunari so egiteko. Nafar Ateneotik, kezka horri erantzuna eman nahi diegu, eta gogoeta hori bultzatu. Horren harira, ikas-

soslaia

Joan den urtarrilaz geroztik Nafar Ateneoko presidente da Emilio Etxabarren, baina elkarte hori askoz lehenago ezagutzen du. 1988. urtean sartu zen Ateneoko batzarrean lehenengo aldiz, eta gero, hainbat urtez elkartetik at egon ondoren, 1991n itzuli zen, lehendakariorde gisa.

Literatura Batzordearen ardura izan zuen bere gain Etxabarrenek Ateneora allegatu zen aurreneko aldirian, eta Ateneotik kanpo ere hori da bere lan esparrua. Literatura katedraduna da Gurutze plazako institutuaren, eta adjunduntzako ikastaroak ere ematen ditu.

Idazle ere bada Emilio Etxabarren, eta prosa eta poesiaren alorrean hainbat lan eman ditu argitaratu. Irungo Hiria Saria ere eskuratu zuen bere eleberririk batek.

zaila da Ateneoaren egunero-ko lanaz gain horrelako zerbait prestatzea. Saiatuko gara, hala ere, Nafar Ateneoko bazkide eta lagun guztiekin ospatu nahi baitugu hamabosgarren urtebetetzea.

→ Edurne Elizondo



Nafar Kronika

Gontzal Agote

Beste bi urte

Bi urte igaro dira soilik eta orduko argazki hura, zenbat jende, zein irribarretsu, lainotuta ikusten dugu, zaharkituta gelditu dela ematen du. Atzean, Sabinen asmatutako ikurrina irlandarrenarekin batera agertzen zen. *Hitza eta erabakia* zioen lelo magikoak, hitzarmen labur baina mamitsua laburbiltzen zuena. Orduan, bertako zein kanpotar askok Estella Lizarra dela ikasi zuten, eta berehala ailegatuko zen Garazi. Egun batzuen bueltan su-eten mugagabea, tranpa bide hau amarruz bete zutenen esanetan. Batera-ren sorrera, presoak etxera, ordura arte telebistan existitzen ez zirenak hasi ziren noizbehinka agertzen. Ezker abertzalearen sostengua Ibarretxeri eta lehen instituzio nazionala, Udalbiltza. Espainiar eta frantziarren beldurra, badoaz, badoaz, hedabideen eguneroko atentatu mediatikoak. Eta abar.

Bi urte igaro dira jadanik, orainaldi gordinen bizi gara. Eraikuntza nazionala aldamiotara ez da iritsi, arkitekto asko eta langile gutxi Mitxelinen matxinada eta ehun urteko ontzi potoloa lema Gasteizera begira. Jarduera armatuaren itzulera, oinazearen eta gaitzespenaren letania. Presoak lehen baino urrunago, baina politikarien agendatik desagertuta, ez batera ez bakarka, ez ezer. Udalbiltza, zer da hori? Guztiekin hitz egin behar dela errepikatu, baina azkenean hobe da lagunekin mintzatzea beste inorekin baino. Demokratik eta biolentoak, abertzaleak eta traidoreak, eskema zaharren berriztapena. Jakobi- eta unionisten poza, beste behin irabazi dugu.

Bi urte pasatu diren arren, jakintsuek behin eta berriz errepikatzen digute ezer ez dela lehengoetara itzuliko. Jakina. Burua gero eta soilago ikusi, sabela puztuago eta zimurren mehatxua gertuago. Bizitzaren zurrunbiloak hainbat lagun urundu ditu, rockak buruko mina sortarazten dit eta kredituen amildegiak harrapatu nau. Honez gain, gazte txartela kendu didate. Ezer ez da lehengoetara itzuliko, beste bi urte igaro dira.

gure aukerak

MUSIKA

► **Atarrabia:** *Ritmos 2000* zikloaren baitan, gaur The Stormy Mondays Oviedoko taldeak joko du, Udaletxe plazan, 22:00etan.

ERAKUSKETAK

- **Zizur Nagusia:** Jaietako kartelen erakusketa kultur etxean ikus daiteke, gaur eta bihar, 19:00etatik 21:00etara, eta igandean, 12:00etatik 14:00etara.
- **Iruñea:** Esther Tapiasen olioak hila bukatu arte daude erakusgai Ormolu aretoan (Paulino Caballero, 42).
- **Oieregi:** Bertizko jaurerrian *Antzinako bizimoduaren irudiak* erakusketa ikus daiteke urriaren 15a arte, 10:00etatik 14:00etara, eta 16:30etik 20:00etara.

IKASTAROAK

- **Eguesibar:** Udalak pintura, berriztatze, sukaldaritza, jaiotze eta esku lanen ikastaroak antolatuta ditu ibarreko bizilagunenentzako. Gaur da 948-331611 telefonoan izena emateko azken eguna.
- **Sakana:** Irailaren 23, 24 eta 30 egunetan, Fernando Saenz de Ugarte jolasetan adituak *Jolasari mamia ateratzen* izeneko ikastaroa emanen du. Ikastaroa hezitzaile, irakasle, aisialdiko begirale eta jolasa lanabes modura darabiltenei zuzenduta dago. Izena emateko, deitu 948-464840 telefonora.
- **Iruñea:** Mendi Federazioak antolatuta, irailaren 30 eta urriaren 1, 7 eta 8 egunetan kirol eskaladako ekipamendu tekniken gaineko ikastaroa egingen dute. Seigarren maila da eskatzen den gutienekoa. Informazioa eta izen

ematea 948-224683 telefonon.

TXAPELKETAK

- **Iruñea:** Arrano elkarteak Xake Txapelketa antolatu du xakelari euskaldunenentzako. Partidak heldu den astelehenera ostirala arte jokatuko dira, 17:00etan. Arrako elkartearen (Redin, 2). Izena emateko nahikoa da astelehenean txapelketa hasi baino hamar minutu lehenago agertzearekin. Bestela, deitu 948-147066 telefonora (Joseba).

EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA


- **Iruñea:** IKako Arturo Kanpion euskaltegiak glotodiktika ikastaroa antolatu du irailaren 20tik 29ra. Gaur da 948-222246 telefonon izena emateko azken eguna.
- **Iruñerria:** Arturo Kanpion, Barañain, Atarrabia, Mendillorri eta Ermitagañako IKako euskaltegien matrikulatzeko epea zabalik dago.
- **Iruñea:** Nafarroako Gobernuko Miluze euskaltegian urrats guzietan matrikula-

tzeko epea irailaren 21a arte dago zabalik, 09:00etatik 12:30era eta 17:30etik 19:30era. Informazio gehiago 177670 telefonon.

BESTELAKOAK

- **Donostia:** Deustuko Unibertsitateko Ignacio de Loyola Institutuak milioi bateko beka emanen du *Karlisdak eta jesuitak* gaia ikertzeko. Eskera orria aurkezteko epea hilaren 30ean akitzen da. Informazio gehiago 943-326600 telefonon.

• IÑAKI VERGARA



Ezbaian

Bai. Ez. Bai. Ez. Baietz. Ezetz. Desadostasuna da eztabaidaren funtsa. Baina nolatan askatuko dugu korapiloa ez eta baien truketzea egiten ez badugu? Irudiak baditu zenbait aste, baina orain hartu du gaurkotan sunik gordinena. Argazkian argi ageri da nortzuek dioten baietz, eta nortzuek ezetz. Baina ez da beti horrela. Izan ere, nahikoa da batzuek ezetz erratearekin, bertzeek baietz erran dezaten. Bai edo ez. EAEn ez, NFKn bai. Bai edo ez. Berri edo zahar. Batzuek mezpretxu egiten diote demokrazia zuzenari, eta bertzeek konfiantza handiegia dute horretan. Herritar guzietan baietzkoa ala ezkoa nahi duten galdetzeko momentua ote da? Tira, herritarrek argi dute behintzat ez dela ezbaian, zaiantzaan, egoteko tenorea. Ala bai? Ala ez?